

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TURISMO-, SUKALDARITZA- ETA OSTALARITZA-SEKTOREETAKO ESTABLEZIMENDUETAN KONTSUMOA SUSTATZEKO "#euskaditurismobono" PROGRAMAREN OINARRIAK.

0. PROGRAMAREN HELBURUA:

- Turismo-, sukaldaritza- eta ostalaritza-sektoreetako norbere konturako langileei eta txikizkako merkataritza-sektoreko mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei (ETE) indartzen laguntzea, baita turismoa dinamizatzea ere, batez ere hurbileko eta tokiko turismoa, produktu, ondasun eta zerbitzu turistikoen kontsumoa eta sukaldaritza- eta ostalaritza-zerbitzuak sustatuz, herritarrei eta bisitatzeko gaitzutenek halakoak eskuratzen lagunduz.
- Sektorer turistikoaren euskarri diren herritarrei eta enpresei laguntza ematea, eskaria sustatuz.
- Sukaldaritza, ostalaritza eta turismoaren jarduera dinamizatzea, udalerrian eta eskualdean duten eragina sustatuz.
- Turismo-establezimenduen maniobra-funtsa hobetzea.

1. XEDEA:

Turismo-, sukaldaritza- eta ostalaritzako produktu, ondasun eta zerbitzuen kontsumo hobariduna bultzatzea, bere aldaera guztietan, deskontu-bonuak jaulkita.

2. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK.

- Eusko Jaurlaritza. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bilboko Udala.

#euskaditurismobonoa



- Donostiako Udala.
- Vitoria-Gasteizko Udala.
- EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarte.

Halaber, programara atxiki ahal izango dira, Jarduketa Protokolo Orokorra onartuz, interesa duten udalerrriak, establezimendu eta enpresentzat zehaztutako atxikipen-epe berean, eta dokumentu honetan jasotako konpromisoak ere bere gain hartuta. Dokumentu hori izango da planaren Jarraipen Batzorde Mistoaren gida.

3. BONUAK AZPISEKTOREEN ARABERA

Lau deskontu-bonu mota ezartzen dira, turismo-industriako azpisektore desberdinen arabera. Azpisektore bakoitzari deskontu-bonuen kopuru jakin bat esleituko zaio,, Jarduketa Protokolo Orokorra sinatu duten erakundeek adostutako irizpidearen eta protokolo horretan parte hartzen duen administrazio publiko bakoitzak emandako zenbatekoen arabera.

- Ostalaritzako bonua. Eustaten estatistika-taulen sailkapenean «563. edarien establezimenduak» kalifikazioa duten establezimenduentzat, turismo-arlo bereizgarrienei dagozkienak.
- Sukaldaritzarako bonua. Eustaten estatistika-taulen sailkapenean «561. jatetxeak eta janari-postuak» kalifikazioa duten establezimenduentzat, turismo-arlo bereizgarrienei dagozkienak.
- Interes turistikoko jardueretarako bonuak. Sukaldaritzza, ostalaritzza eta ostatuez bestelako establezimendu eta enpresentzat.
- Ostatu-establezimenduak.

Deskontu-bonuak honela erabiliko dira:

- 5 euroko deskontu-bonuak. 20 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahalko dira programari atxikitzen zaizkion ostalaritzako, sukaldaritzako eta interes turistikoko jardueretako establezimenduetan.
- 10 euroko deskontu-bonuak. 40 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahalko dira programari atxikitzen zaizkion ostalaritzako, sukaldaritzako eta interes turistikoko establezimenduetan.

#euskaditurismobonoa



- **20 euroko deskontu-bonuak.** 60 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahalko dira programari atxikitzen zaizkion ostatu-establezimenduetan.

Programaren bidez ahalik eta enpresa kopuru handienera iristeko, eta turismo-produktu, -ondasun eta -zerbitzuen kontsumoa sustatu nahi dela kontuan hartuta, sistema bat ezarri da erabiltzaile bakoitzak (NAN bidez identifikatuta) gehienez ere 40 euroko balioa duten deskontu-bonuak batu ahal izateko. Era berean, gehienez ere bi deskontu-bonu emango dituzte establezimendu edo enpresa bakoitzean faktura bakoitzeko.

4. DESKONTU-BONUEN FUNTZIONAMENDUA.

Programarako berariaz sortutako plataforma bat jarriko da martxan, sustapen-kanpainaren irudi eta *naming*-arekin (#euskaditurismobono) argi eta garbi ezagutuko dena, eta berezko URL identifikagarriarekin. Plataforma horretan, programan parte hartzen duten erakunde guztien logoak agertuko dira, protokoloari jarraituz ezarritako ordenan, baita horretarako ezarritako epean atxikitzen diren toki-erakundeena ere.

Deskontua aplikatzeko funtzionamendua eraginkortasunez gauzatzeko teknikoki egokientzat jotzen diren aplikazioen bidez, aldeztatik atxikitako establezimenduek atxikipen-aldiaren ostean definitutako hiru mota horietako deskontu-bonuen kopuru jakin baterako sarbidea izango dute.

Aplikazio horrek aukera emango du dagokion deskontua aplikatzeko zehaztutako, eta horretarako gaitutako, atal edo deskontu motara sartzeko eta, hala dagokionean, deskargatzeko. Eragiketa bakoitzari onuradunaren nortasunaren datuak (NAN) eta deskontu-bonua erabiltzeko behar diren zenbatekoen faktura erantsiko zaio.

5. PROGRAMARIATXIKI DAITEZKEEN INTERES TURISTIKOKO ZERBITZUAK, LANBIDEAK ETA JARDUERAK.

- Ostatu-establezimenduak (nekazaritza-turismoko establezimenduak, turismo-aterpetxeak, apartamentuak, kanpinak, landetxeak eta hotelak).
- Turismo-gidariak.
- Bitartekaritza-enpresak



#euskaditurismobonoa

- Sukaldaritzako eta ostalaritzako establezimenduak (jattetxeak, tabernak, kafetegiak eta antzeko establezimenduak), jendearentzat oro har irekita dauden establezimendu finkoetan jarduten dutenak, eta lokal berean, ohikotasunez eta profesionalki, kontsumitzeko janariak eta edariak eskaintzen dituztenak.
- Naturan kirol-jarduerak egiten dituzten enpresak, hala nola turismo aktiboa eta abentura-turismoa.
- Ibilbide turistikoak egiten dituzten garraio-enpresak.
- Kultura-, gastronomia- eta natura-ondarea zabaltzen duten enpresak.
- Jolas-zentroak

6. ERAKUNDE LAGUNTZAILEA:

Hiru lurralde historikoetako merkataritza-ganberak.

7. ONURADUNAK

Euskadin bizi diren edo beste toki batzuetatik bisitatzen gaituzten 18 urtetik gorako pertsona fisikoak, deskontu-bonu mota desberdinak ezarritako bideetatik eskuratzendituztenak.

8. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PRODUKTUAK, ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK

5. paragrafoan zerrendatutako erakundeek merkaturatzen dituztenak.

9. ENPRESAK ETA ESTABLEZIMENDUAK ATXIKITZEA.

Turismoko, sukaldaritzako eta ostalaritzako produktuak, ondasunak eta zerbitzuak kontsumitzaileari saltzea helburu duten establezimendu, enpresa eta lanbideak, 5. paragrafoan zehazten den bezala.



#euskaditurismobonoa

Programa norbere konturako langileentzat, mikroenpresentzat, enpresa txiki eta ertainentzat da.

Ohiko formalitateak bete beharko dituzte beste erakunde batzuekin, hala nola Gizarte Segurantzarekin edo foru-ogasunekin.

10. ATXIKITZEKO EPEA ETA PROZESUA

Hiru aste, horretarako prestatutako plataforman eskuragarri dagoen formularioa osorik betez.

Parte hartzen duten erakundeen jakinarazpena (Jarraipen Batzorde Misto) atxikitze-eskaera onartu den ala ez (plataformaren bidez).

Programa honi atxikitako establezimenduek plataforman jarraitu ahal izango dute, beren lurralde-eremuan parte hartzen duten erakundeek etorkizunean antolatutako ekintzetan parte hartu ahal izateko, baldin eta atxikipen-unean berariaz hala adierazten badute, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra aplikatuz.

11. ATXIKITAKO ESTABLEZIMENDUEN BETEBEHARRAK:

- Publizitate-materialak jasotzea eta ipintzea. (Parte hartzen duten erakundeek adostutakoak)
- Erosleei eskudirurik ez itzultzea.
- Galdetegi labur baten aleak edukitzea, ikusteko moduko leku batean, nahi duten bezeroek bete ditzaten.
- Atxikitako establezimenduekin harremanetan jartzeko aukera egongo da, funtzionamendua egiaztatzeko eta oro har prozesuari eta kanpainari buruz duten iritzia jasotzeko.

12. APLIKATUTAKO DESKONTUAK ORDAINTZEA:

Astero, informatika-sistemaren eta programa abian jartzeko garatutako aplikazioen bidez.

13. ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN BETEBEHARRAK

- Programa hedatzea.



- Erakunde interesdunei informazioa ematea.
- Deskontu-bonuei dagozkien zenbatekoak astero ordaintzea programari atxikitako norbere konturako langileei eta mikro-enpresa eta enpresa txiki eta ertainei.
- Parte hartzen duten erakundeekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenetan jasotzen diren gainerakoak.

14. DESKONTU-BONUAK LOKALIZATZEA ETA ERABILTZEA:

Deskontu-bonuak atxikitako establezimendu eta negozioetan soilik egongo dira eskuragarri.

15. EAEko UDALEN ATXIKIMENDUA.

Programari atxiki ahal izango dira, Jarduketa Protokolo Orokorra onartuz,, interesa dutenEAEko udallerriak, hiru asteko atxikipen-epe horretan, eta dokumentu honetan jasotako konpromisoak ere bere gain hartuta. Dokumentu hori izango da #euskaditurismobono programa gauzatzeko sortuko den Jarraipen Batzorde Mistoaren gida.

#euskaditurismobonoa

